




WEB EDO WAP ORRIAK SORTU ETA EDITATZEKO PROGRAMA EDO WEB ZERBITZUA PROGRAMA O SERVICIO WEB PARA CREAR Y EDITAR PÁGINAS WEB O WAP

42

DEFINIZIOA Zer da?

Web-orriak sortu eta editatzeko programa edo web-zerbitzua web-nabigatzailean bistaratzeko egokiak diren artxiboak lantzea ahalbidetzen duen aplikazio informatikoa da. Web-orri baten edukia bi motatakoa izan daiteke:

- **Estatikoa edo lehenetsia:** etiketa-lengoaia erabiltzen da, html edo xhtml izenekoa; ikasten eta erabiltzen erraza da.
- **Dinamikoa:** web-orria bistaratzean sortzen da. Web-orri dinamikoa garatzeko konplexuagoak dira, programazio-lengoaia eskatzen baitute (Php, Asp, JavaScript, Perl).

Wap-orriak sortu eta editatzeko programa edo web-zerbitzua interneteko zerbitzari batean gordetzen diren eta edozein gailu mugikorretatik edo internetera konektatutako edozein ordenagailutatik bistara daitezkeen artxiboak egiten dituen aplikazio informatikoa da. Konparazioa guztiz egokia ez den arren, jende artean oro har onartzen da wap-orriak telefonia mugikorrerako zer, huraxe direla web-orriak internetera konektatutako ordenagailu baterako. Gaur egun, wap-orriak oso sinpleak dira, estatikoak (elkarrekintzako aukera mugatuak dituzte eta aukera horiek Java ME aplikazioak inplementatuta hobetuko dira), diseinu-formatu berezikoak (web-orri estuak—200 bat pixeleko zabalera dute— eta behar bezain luzeak dira) eta beren elementu grafikoek tratamendua espezifikoak da nabigazio-abiadura gehitzea errazteko.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Un programa o servicio web para crear y editar **páginas web** es una aplicación informática que permite elaborar archivos aptos para su visualización en un navegador web. El contenido de una página web puede ser:

- **Estático o predeterminado:** se utiliza un lenguaje de etiquetas, llamado html o xhtml fácil de aprender y de utilizar.
- **Dinámico:** generado al momento de visualizar la página. Son más complejas de desarrollar, ya que requieren de un lenguaje de programación (Php, Asp, JavaScript, Perl).

Un programa o servicio web para crear y editar **páginas wap** es una aplicación informática que elabora archivos que se almacenan en un servidor de Internet y que pueden ser visualizados desde cualquier dispositivo móvil u ordenador conectado a internet. Aunque no sea estrictamente adecuado, popularmente se acepta que las páginas wap son para la telefonía móvil el equivalente a lo que suponen las páginas web para un ordenador conectado a Internet. Actualmente, las páginas wap se caracterizan por su simplicidad, su carácter estático (con posibilidades reducidas de interactividad, que serán subsanadas a través de la implementación de aplicaciones Java ME), su formato de diseño (son páginas estrechas –unos 200 píxeles de ancho- y tan largas como sea necesario) y el tratamiento específico de sus elementos gráficos para favorecer la velocidad de navegación.

BALIABIDEAREN ERABILERA Nola erabiltzen da?

IKT baliabideen multzo honetan, hainbat lan-estrategia bereizten da:

Web-orriak editatzeko programa. Ordenagailuaz modu lokalean lan egitea ahalbidetzen du, web-orri bat edo hainbat web-orri estekaturen multzoak egiteko. Ordenagailuan hartarako programa bat instalatu behar da. Eskuarki, testu-prozesadorearen antzeko tresnen bitartez elementuak txertatzea ahalbidetzen du, baita web-orria nabigatzailearekin bistaratzea ere. Gaur egun, editore gehienek dituzte FTP funtzioak (artxiboak internetera kargatzea). Horretarako, web-esparru edo host baterako sarbidea behar da.

Web-orriak sortu eta editatzeko web-zerbitzua. Web-orri bat edo hainbat web-orri estekaturen multzoak egiteko linean lan egitea ahalbidetzen du. Eskuarki, erabiltzaileari html kodea ezkutatzen diote, eta, beraz, lana errazten diote. Zerbitzu horiek eskuratzeko aldez aurretik erregistratu egin behar da helbide elektroniko bat sartuz. Oso erraz erabiltzekoak dira eta sortutako web-orriei ostatu ematen diete. Halaber, html-a editatzeko programa batez sortutako web-orriak kargatzea

ahalbidetzen dute.

Wap-orriak editatzeko programa. Ordenagailuaz modu lokalean lan egitea ahalbidetzen du, wap-orri bat edo hainbat wap-orri estekaturen multzoak egiteko. Web-orrietarako programaren antzeko moduan jardun behar da, baina wap-orriak bistaratzeko funtzioetan wap-orria bistaratzea aurreikusi deneko sakelako telefonoaren eredia aukera daiteke (wap emuladoreak).

Wap-orriak sortu eta editatzeko web-zerbitzua. Wap-orri bat edo hainbat wap-orri estekaturen multzoak egiteko linean lan egitea ahalbidetzen du. Web-orrietarako programatarako ezarritako antzeko moduan jardun behar da.

UTILIZACIÓN RECURSO ¿Cómo se usa?

Dentro de este grupo de recursos TIC se distinguen diferentes estrategias de trabajo:

Programa editor de páginas web. Permite trabajar en local con el ordenador para elaborar una página web o un conjunto de páginas web enlazadas. Requiere instalar un programa en el ordenador. A menudo permiten la inserción de elementos mediante herramientas similares a un procesador de textos y visualización de la página web con el navegador. Actualmente, la mayoría de editores incorporan funciones de FTP (subida de archivos a Internet), para lo cual se requiere acceso a un espacio web o host.

Servicio web de creación y edición de páginas web. Permite trabajar en línea para elaborar una página web o un conjunto de páginas web enlazadas, por lo general hacen invisible al usuario el código html, facilitando así la tarea. Estos servicios normalmente requieren un registro previo con una dirección de correo electrónico. Son muy sencillos de utilizar y brindan además alojamiento a las páginas creadas. También permiten subir páginas web creadas con un programa editor de html.

Programa editor de páginas wap. Permite trabajar en local con el ordenador para elaborar una página wap o un conjunto de páginas wap enlazadas. Se opera de modo similar a su par para páginas web con la peculiaridad que, en las funciones de visualización de páginas wap se puede seleccionar el modelo de teléfono móvil con el que se prevé visualizar la página wap (emuladores wap).

Servicio web de creación y edición de páginas wap. Permite trabajar en línea para elaborar una

página wap o un conjunto de páginas wap enlazadas. Se opera de un modo similar a lo establecido en su par de páginas web.

IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Ikasleekin web-orriak egiteko lanak interneten edukia askatasun osoz argitaratzea ahalbidetzen du eta ez da aldez aurretik ezarritako formaturik erabili behar (artikuluak aldi baterako sekuentziatzen dituen blogaren eta eztabaida eta berridazketa sustatzen dituen wikiaren kasuan ez bezala). Web-orri bat edo webgune bat (web-orri asko estekatuak) sortzeko, erabaki guztiak hartu behar dira: zer egitura izango duen, irudientzako tokia, loturak nola irekiko diren, etab.

Gaur egun dauden zerbitzuek lan hori izugarri errazten dute eta lehen hezkuntzako 3. ziklotik gorako ikasleek erabil ditzakete.

Web-orria ikasleek egindako era guztietako proiektuak edo ikerlanak argitara emateko sor daiteke. Beste web-eremu batzuetan (blogak, wikiak, irudi-galeriak, bideoak, podcastak, aurkezpenak, posterrak, etab.) ostatatutako ekoizpenetarako loturak ezartzeko aurkibide gisa ere erabil daiteke. Hartara, web-orria abiapuntua da familiek eta gainerako hezkuntza-komunitateak ikasleek urtean egindako ekoizpen guztiak eskuratzeko.

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

La elaboración de páginas web con los alumnos, es una tarea que permite publicar contenido en Internet con total libertad y sin ningún formato pre-establecido (a diferencia del blog que secuencia artículos en forma temporal, o un wiki que fomenta la discusión y la re-escritura).

Para crear una página o sitio web (muchas páginas enlazadas) es necesario tomar todas las decisiones: la estructura que tendrá, el lugar para las imágenes, como se abrirán los enlaces, etc.

Los servicios disponibles actualmente facilitan mucho la tarea y está al alcance de los alumnos de 3er ciclo de primaria en adelante.

Una página web se puede crear para hacer público todo tipo de proyectos o investigaciones que realicen los alumnos. Incluso se puede utilizar como índice para enlazar a las distintas producciones alojadas en otros espacios web (blogs, wikis, galería de imágenes, vídeos, podcast, presentaciones, pósters, etc). De

esta forma la página se convierte en punto de partida para que las familias y el resto de la comunidad educativa accedan a todas las producciones realizadas durante el año.

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK**
Non aurki dezaket?

Web-orriak editatzeko programa

Webfacil

Ikasle orok web-orri bat jarraibide jakin batzuen arabera landu eta argitaratzea ahalbidetzen duen programa erraza. Ez da beharrezkoa HTMLrik jakitea.

<http://webfacil.softonic.com/>

Kompozer

Html-a editatzeko doako programa osatua.

<http://kompozer.softonic.com/>

Gaztelaniazko itzulpen-adabakia behera kargatu behar da.

<http://kompozer.softonic.com/extras>

Web-orriak sortu eta editatzeko web-zerbitzua.

Jimdo

Web-orri bat azkar sortzea eta askotariko funtzioak erabilgarri izatea ahalbidetzen duen zerbitzua.

Funtzio horien artean, lineako denda-aukerak sortzea nabarmentzen da.

<http://es.jimdo.com/>

Youtube kanal bat du; bertan, bere aukera guztien erabilera errazteko tutorialak argitaratzen dira aldiro.

<http://www.youtube.com/user/tutorialesjimdo#g/u>

GoogleSites

<http://www.google.com/sites/help/intl/es/overview.html>

Webgune bat doan sortu eta partekatzea ahalbidetzen du.

Wap-orriak editatzeko programa

Waptor

Wap-orriak editatzeko programa ospetsuenetako bat. WAPekin bateragarriak diren web-orriak egokiro,

azkar eta erraz programatzeko behar diren laguntza guztiak biltzen ditu: etiketen kudeaketatik hasita grafikoen maneioa edo taulen sorkuntzara arte. Are gehiago, kodea sartzeko leihoaren alde batean emaitza aurrez bistaratzeko aukera ematen du, webgune batean kargatu baino lehen edo kodea idazten den bitartean.

http://www.entrebits.com/software/waptor/3_0/download

Wap-orriak sortu eta editatzeko web-zerbitzua.

QR-Edu kodeko wap-editorea (gaztelaniaz)

Erregistratu ondoren, erabiltzaile-profila editatutakoan QR kode banatara lotutako gehienez bost wapgune sortzea ahalbidetzen duen wap-editorean sartzen da. Edizio-tresnek norberak sortutako kontuan irudiak eta flash artxiboak kargatzea ahalbidetzen du, eta, beraz, baita eskola-inguruneetan erabilera seguruagoa izatea ere.

<http://www.qredu.net/>

Collage Web

Argentinako estatuaren hezkuntza-atarian (Educ.ar) argitaratutako proposamen didaktikoa. HTML editatzeko tresnen erabileran trebatzea proposatzen du, ikasleei beren ideiak, ekimenak eta sormena argitara emateko baliabidea hornitzearren. Nabigatzailetik web-orriak behera kargatzeko eta lineatik kanpo lan egin ahal izateko programa du (WinHTTrack), baita web editore-nabigatzaile bat ere (Amaya).

<http://200.16.65.40/educar/site/educar/Collage%20Web.html?uri=urn:kbee:e1ff55f0-1b6f-11dd-9354-00163e000038&page-uri=urn:kbee:ff9221c0-13a9-11dc-b8c4-0013d43e5fae>

Hezkuntza-arloko web-orrien adibideak

La Llitera BHIko ikasleen web-orriak, 2004-2005 ikastaroa

Ikasleek egindako web-orrien adibidea

<http://iestamar.educa.aragon.es/personal/>

Ingurunearen ezaguerako unitate didaktikoak (goi-zikloa)

Motrileko (Granada) Equipo Costa 21 lan-taldeak egindako hezkuntza-arloko web-orria.

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/html/adjuntos/2007/09/17/0010/unidades.html>

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

Espainiako ikastetxeen web-orrien direktorioa

Espainiako Gobernuaren Hezkuntza Ministerioko Hezkuntza Teknologien Institutuak (ITE) egina
<http://www.ite.educacion.es/w3/centros/index.html>

Programa editor de páginas web

Webfacil

Un programa muy sencillo que permite que todo alumno elabore y publique de forma pautada una página web. No requiere saber HTML.
<http://webfacil.softonic.com/>

Kompozer

Completo programa editor html gratuito.
<http://kompozer.softonic.com/>
Hay que descargar el parche de traducción en español
<http://kompozer.softonic.com/extras>

Servicio web de creación y edición de páginas web.

Jimdo

Servicio que permite crear rápidamente una web y disponer de múltiples funciones, entre las cuales destaca la creación de opciones de tienda en línea.
<http://es.jimdo.com/>
Dispone de un canal youtube en el que se van publicando periódicamente tutoriales que facilitan el uso de sus múltiples posibilidades.
<http://www.youtube.com/user/tutorialesjimdo#g/u>

GoogleSites

<http://www.google.com/sites/help/intl/es/overview.html>
Permite de forma gratuita crear y compartir fácilmente un sitio web.

Programa editor de páginas wap

Waptor

Uno de los programas editores de páginas wap más populares. Incorpora todas las ayudas necesarias para programar correctamente páginas Web compatibles WAP de una manera rápida y sencilla: desde la gestión de las etiquetas al manejo de gráficos o a la creación de tablas. Incluso permite previsualizar el resultado antes de subirlo a un sitio web o mientras se escribe el código, a un lado de la ventana de introducción del código.

http://www.entrebts.com/software/waptor/3_0/download

Servicio web de creación y edición de páginas wap.

Editor wap de QR-Edu (en español)

Tras registrarse, al editar el perfil de usuario se accede al editor wap que permite crear gratis hasta cinco sitios wap vinculados, cada uno, a un código QR. Las herramientas de edición permiten cargar imágenes y archivos flash en la propia cuenta generada lo cual permite un uso más seguro en entornos escolares.

<http://www.qredu.net/>

Collage Web

Propuesta didáctica publicada en el portal educativo del Estado argentino (Educ.ar) que propone la capacitación en el manejo de herramientas para editar HTML para otorgar a los alumnos el medio para publicar sus ideas, sus emprendimientos, su creatividad. Incluye un programa para descargar páginas web desde el navegador y poder trabajar fuera de línea (WinHTTrack) y un editor-navegador web (Amaya)

<http://200.16.65.40/educar/site/educar/Collage%20Web.html?uri=urn:kbee:e1ff55f0-1b6f-11dd-9354-00163e000038&page-uri=urn:kbee:ff9221c0-13a9-11dc-b8c4-0013d43e5fae>

Ejemplos de páginas web educativas

Páginas web de alumnos IES La Llitera curso 2004-2005

Ejemplo de páginas web elaboradas por alumnos

<http://iestamar.educa.aragon.es/personal/>

Unidades didácticas de Conocimiento del Medio (Ciclo superior)

Web educativa elaborada por el Equipo Costa 21. Motril (Granada)

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/html/adjuntos/2007/09/17/0010/unidades.html>

Directorio de webs de centros escolares españoles

Elaborado por el Instituto de Tecnologías Educativas (ITE) del Ministerio de Educación del Gobierno de España

<http://www.ite.educacion.es/w3/centros/index.html>